



BARREN

TOKIKOM



**Lanean,
baina mugekin**

ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN



HH 0-1eko matrikulazio aldia zabalik **maiatzaren 18tik aurrera**

HH 0koak (2020an jaiotakoak) eta HH 1ekoak (2019an jaiotakoak) irailetik aurrera hasteko

elgoibar ikastola



Izen-ematea: www.elgoibarikastola.eus
943 744441

Ordutegi zabala / Jai-zubietan eta oportetan irekita



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian
edo

www.barren.eus webgunean

943 743 704 / 688 634 044

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



Fp



IMH

LANDE HEZIKETA
BARRERAN INTEGRATUA
CENTRO INTEGRADO DE
FORMACION PROFESIONAL



**HEZIKETA ZIKLO
INDUSTRIALAK**

Informazio saioa: maiatzak 21
18:00etan | on-line

Gorde tokia: 943 74 82 65
zikloak@imh.eus

www.imh.eus



IMH

INGENIARITZA DUALAREN
UNIBERTSITATE GRADUA
EITZULI UNIBERTSITATE
DE INGENIERIA DUAL

UPV EHU



**INGENIARITZA DUALAREN
UNIBERTSITATE GRADUA**

www.imh.eus



Informazio saioa: maiatzak 28
17:00etan | on-line

Gorde tokia: 943 74 82 64
ingeniaritza.ehu@imh.eus

Herritarrekin batera, entitateek ere modu aktiboan parte hartzeko aukera izango dute Euskaraldiaren bigarren edizioan. Baina, zer moduz daude Elgoibarko entitateak? Prest al daude Euskaraldian parte hartzeko? Nahi dute? Ahal dute?

AINHOA MUGERTZA, Haritz EDT

“Taldeak oso begi onez hartu du Euskaraldia”

◆ Zer eragin izan du koronabirusak zuen entitatean?

Taldekide guztiok onik eta osasuntsu gaude. COVID-19ak eragin zuzena izan du dantza taldean, izan ere, gure entsegu fisikoak bertan behera gelditu dira. Hala ere, ez diogu dantzatzeari utzi eta entsegu birtualak egiten ditugu gure betiko

entsaio orduak errespetatuz. Erabaki hau taldekide guztion artean hartu genuen. Berrantolaketa sakona suposatu digun arren, gustura egin dugu eta dantzarako aukera berriak ezagutu ditugu.

◆ Euskaraldia Taldekoekin egoteko moduan zaudete?

Hilabete hauetan Folklore Jaialdia prestatzen ibili gara, baina egoerak hala behartuta, eta denon segurtasuna eta osasuna bermatzeko, bertan behera lagatzea erabaki dugu. Orain jaialdia berrantolatzen gabiltza ideia berriekin. Hala ere, Euskaraldian parte hartzeko gogoz gaude, talde ezberdinen iritzi eta ideiak entzun eta talde gisa, gure alea jartzeko.

◆ Zuen entitateko jendea animatuko al da?

Hori espero dugu. Taldeak oso begi onez hartu zuen Euskaraldia eta bigarren ariketa hau hasieratik, eta iritzi berri eusten diogu gaur egun ere.

◆ Zer garrantzi ematen diozue zuen entitatean euskarari?

Handia. Euskal dantzari talde bat izaki, Euskal Herriaren kultura eta hizkuntza bidelagun dauzkagu gure ibilbidean. Taldearen egunerokoan oinarria da euskara.

◆ Zer eskainiko dio Euskaraldiak zuen entitateari?

Euskararen erabileraren inguruko gogoeta egitea taldekide guztiontzat onuragarria izango delakoan gaude. Une batez gelditu eta ikustea zein punturaino den garrantzitsua euskara gure egunerokoan, zer presentzia duen, noiz eta nola ageri den, erabiltzeko hautua egiten dugun edo natural datorkigun eta erabiltzen ez dugunetan zein den arrazoia... Bide batez, erabileran dauzkagun ahuleziak edo sendotasunak aztertuz.

GORKA MUJIKA, Udal Musika Banda

“Euskararekiko kontzientzia areagotzeko aukera eskainiko digu Euskaraldiak”

◆ Nola eragin du koronabirusak Udal Musika Bandan?

Eragin handia izan du. Gure entsegu eta kontzertu guztiak bertan behera utzi behar izan ditugu, eta badi-rudi, gainera gure alorra izango dela martxan jarriko duten azkena. Nik bidali dizkiet taldekideei partitura batzuk, eta

norbera bere etxean ari da jotzen, baina talde moduan geldirik gaude. Konfinamendu epealdi honetan gainera, gure taldekide Oier Etxaniz hil zen, eta gogorra izan da behar bezala agurtu ezin izatea. Haren omenez ere jo genuen kide guztiok abesti bat, bakoitzak bere bakoitik.

◆ Euskaraldia Taldekoekin egoteko moduan zaudete?

Orain momentuan ez dakit. Oraindik ezin gara taldean bildu, eta ez dakit posible izango den. Baina Euskaraldian parte hartzeko asmoa badaukagu. Ahal dugunean, ekimen honi heltzeko prest gaude.

◆ Zein garrantzia dauka euskarak zuen taldean?

Gu astean behin elkartzen gara ordu eta erdiz taldeko entsegu egiteko. Egia da ez dugula izaten hitz egiteko denbora askorik, gehienbat musika joteari eskaintzen diogulako tarte hori, baina hitz egiten dugun guztia euskaraz egiten dugu. Kontzertuetan ere euskara izaten da hizkuntza nagusia. Txomin Mujikak aurkezten ditu kantuak, eta tarteka gaztelaniaz ere egiten duen arren, gehienbat euskara erabiltzen du.

◆ Bandako kideak animatuko al dira Euskaraldian parte hartzera?

Baietz esango nuke. Aurreko edizioan ere taldekide gehienek jantzi zituzten Ahobizi edo Belarriprest txapak, eta oraingoan ere parte hartuko dutelakoan nago.

◆ Zer emango dio Euskaraldiak zuen taldeari? Eta, Elgoibari?

Euskararekiko kontzientzia indartzeko aukera eskainiko digu taldean, eta herriari, berriz, jendearen artean euskara izatea harremanetarako lehen hizkuntza.



Nazioarteko Folklore Jaialdia bertan behera laga du Haritz dantzari taldeak



Arg.: Soarte

Osasun agintarien gomendioetan oinarrituta, aurtengo Nazioarteko Folklore Jaialdia bertan behera uztea erabaki du Haritz Euskal Dantzari taldeak. Erabakia hartzea zaila izan dela aitortu dute taldeko kideek: "Covid-19aren eraginez, muga geografikoez gain, osasun-mugak ditugu aurten. Ondorioz, nazioarteko taldeek ez dute posible izango gurera etortzea. Hori dela eta, ezin izango ditugu geure kulturak trukatu. Normaltasun ezezagun baterantz bagoaz ere, eta uztaila urruti ikusi arren, ezin diogu Nazioarteko Folklore Jaialdiari eskatzen digun esfortzu, denbora eta dedikazio-maila altua eskaini". 1987an antolatu zuten Nazioarteko Folklore jaialdia estreinakoz, orain dela 33 urte, eta eskerrak eman dizkiete urte hauetan guztietan ekitaldia antolatzen lagundu dieten guztiei, eta baita ikusleei ere.

Herritarren Arreta Bulegoa zabalik dago

Atzo zabaldu zuten Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoa, lehenengo fase honi dagozkion higie eta segurtasun neurriak hartuta. Hori dela-eta, espazioa berregokitu dute, itxarongela kendu dute eta arretarako mahaietan manparak jarri. Gel hidroalkoholikoa ere herritarren eskura egongo da. Edukiera ere mugatu dute, eta erabiltzaileak banaka joan beharko dira, mende-kotasuna duten pertsonak izan ezik. 14 urtetik beherakoak ere senide batekin hurbildu beharko dira. Bulegora joan aurretik, 943 741 050 telefonora deitzea gomendatu dute. Bulegoa, 7:30etik 15:30era egongo da zabalik.

Matrikulazio epea zabalik dago Musika Eskolan

Maiatzaren 18tik ekainaren 5era izango da Musika Eskolan matrikulatzeko epea. Lehendik izena emanda zeuden ikasleak zuzenean matrikulatuko dira hurrengo ikasturterako, eta ikasle berrien kasuan, aurrez aurreko informazioa emango diete gurasoei. 15:00etatik 19:00etara egongo da zentroa zabalik. Informazio gehiagorako elgoibarmusika@elgoibarmusika.eus helbidera idatzi edo 943 742 145 edo 628 929 055 telefonoetara deitu daiteke.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen liritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olai-zola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Bi igogailu eraikiko dituzte Urazandin, auzoko irisgarritasuna hobetzeko



Urazandiko 1 eta 9 zenbakietako blokeen arteko bi eskailera mekanikoak kendu eta bi igogailu jartzeko obrak lizitaziora atera ditu Elgoibarko Udalak. Lanek 696.060 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute, eta lanak amaitzeko zazpi hilabeteko epea izango du lizitazioa eskuratzen duen enpresak. Eskaintzak aurkezteko epea ekainaren 2an amaituko da, eta ondo bidean, lanak irailean hastea aurreikusiten dute arduradunek. Covid-19aren ondorioz indarrean jarri zuten alarma egoerak obra hauen exekuzioa atzeratu du, izan ere, martxoaren 13an ireki zen kontratazio prozeduraren epea eten egin behar izan zuen Udalak. Elgoibarko Udaleko arduradunen berbetan herriko auzo guztietako irisgarritasuna hobetu eta bermatzeko strategiako proiektu garrantzitsuenetako bat da honakoa.

Santanetarako aurreikusitako dirua herriko ostalariei eta merkatariei laguntzeko erabiliko dute

Osasun-agintarien gomendiotan oinarrituta, Mendaroko Santa Ana Jaiak bertan behera lagatzea erabaki du Mendaroko Udalak, eta jaietarako zuen aurrekontua koronabirusak eragindako kalteak arintzeko erabiliko dute. Ahobatez hartu dute erabakia Udalean ordezkariak duten hiru alderdiek. Udalak ez du baztertu ordezeko egitararen bat prestatzea, eta aurreratu du jai-batzordearekin bilera deitzeko aukera dutenean jarriko direla hori aztertzen. Uztaileko bi asteburutan egitekoak ziren Santa Ana jaiak, baina "erantzukizun sozialez" jokatzea dagokiola gogoratu du Udalak, eta hala egin duela nabarmendu.



Bi mila maskara banatuko ditu Udalak merkatarien artean

Eudelek 300.000 maskara banatu ditu 252 udaletan, eta populazioaren araberak, Elgoibarko bi mila egokitu dizkio. Aurretik ere banatu zituen maskarak Eudelek, baina akatsak zituztenez, erretiratu egin behar izan zituzten. Elgoibarko Udalak erabaki du orain jasotako bi mila maskara horiek zerbitzuetako eta komertzioetako langileei banatzea. Gipuzkoako Foru Aldunditik ere jasoko ditu Udalak maskara gehiago eta horiek ere banatuko dituztela esan dute.

Langabezia-tasak %10a gainditu du Elgoibarren apirilean

Martxoan baino 28 langabe gehiago daude Elgoibarren, eta %10eko langabezia-tasa gainditu du. Mendaron ere martxoan baino hamabost lagun gehiago daude lanik gabe, eta langabezia tasa %9,81ekoa da. Debabarrenan 231 langabe gehiago daude martxoan baino, eta langabezia-tasa %12,48koa da. Soraluzek du eskualdeko langabezia-tasarik altuena (%14,94). Baxuena, aldiz, Debak (%8,03). Guztira 3.302 dira Euskadiko enplegu-zerbitzu publikoen bulegoetan izena emandakoak.

Presape itxi dute Mendaron

Konfinamenduaren arintzea hasi zenetik, jendea pilatu izan da Presape inguruan, eta jende pilaketa horiek saihesteko gune hori itxi egin dute. Momentuz ez dute beste ingururik itxi, baina Iñaki Arregi alkateak ohartarazi du ikusiko balute beste lekuren baten ere Presapen ikusi diren irudiak errepikatzen arriskua dagoela, itxi egin beharko luketela.

Astelehenean sartu zen Hego Euskal Herria lehenengo fasean, baina Jaurlaritzak zenbait murrizketa gehitu ditu dekretuan



Espainiako Gobernuak hala baimenduta, lehen fasean sartu zen Hego Euskal Herria astelehenean, baina Eusko Jaurlaritzak MadrilE fase honetarako ezarritako zenbait irizpide murriztu egin ditu. Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian udalerrria izango da muga, baina herritik herrira mugitzeko aukera izango da, osasun, lan, lanbide edo enpresa arrazoientzat; ohiko bizilekura itzultzeko; hezkuntza eta prestakuntza arrazoientzat; adinekoak, mendekoak, desgaituak edo premia egoeran dauden senitartekoak bisitatzeko, zaintzeko eta artatzeko, bai eta antzeko beste edozein arrazoientzat ere. 14 urtetik beherakoak heldu batekin joan daitezke, baimendutako jardueraren batera baldin badoaz. Era berean, udalerriekin muga egiten duten herrietara joateko aukera izango dute, lasterka, bizikletan edo menditik oinez, betiere bidea euren udalerrian hasten badute, eta jatorrizko udalerriko ordu-tarteak errespetatuta. Honi lotuta, paseatzeko ezarritako zegoen kilometro bateko muga indargabetu dute, eta etxe berean bizi diren lagun guztiek batera kalera irteteko aukera dute. Paseatzeko eta kirola egiteko ordutegiak berdin jarraituko dute (Mendaron ez dago ordu-mugarik, 5.000 biztanle baino gutxiago dituelako): 6:00etatik 10:00etara, eta 20:00etatik 23:00etara, helduen

kasuan; 10:00etatik 12:00etara, eta 19:00etatik 20:00etara, mendekotasunen bat dutenentzat eta 70 urtetik gorakoentzat; eta 12:00etatik 19:00etara, 14 urtez beherako haurrentzat. Azken horiek gehienez ordubete izango dute kalean egoteko, orain arte bezala. Azken erabakien arabera, Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian ezingo da hamar laguneko talderik bildu etxetan, sozietatean, txokoetan, plazetan edota parkeetan, baina senideak bisitatzeko aukera egongo da, beti ere, babes neurriak zainduta. Familia bereko kideak batera ibili daitezke autotan.

Lehen fase honetan tabernetako terrazak zabalteko aukera dago, %50ean. Gehienez hamar lagun elkartu ahalko dira mahai bakoitzean, eta kideen artean bi metroko tartea zainduta. 6:00etatik 23:00etara egongo dira terrazak zabalik, eta edozein ordutan joan daiteke, denbora mugarik gabe. Komertzio eta zerbitzuetan aurretiazko zitarik ez da behar, auto konzesionarioak eta tailer mekanikoak zabaldu dituzte, gimnasio pribatuak ere bai, eta beilak, hiletak eta elizkizunak ere baimenduta daude edukieraren %30ean, baina Elgoibarren bigarren fasera arte itxarotea erabaki dute liturgiak martxan jartzeko. Liburutegi eta museoak itxita egongo dira fase honetan.

Batxilergoko bigarren mailako eta Lanbide Heziketako ikasleak hilaren 18tik aurrera eskolara itzultzeko aukera dute

Osasun-egoerak aukera ematen badu, Batxilergoko 2. mailako, Goi Mailako Lanbide Heziketako 1. eta 2. mailako eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako 2. mailako ikasleak maiatzaren 18tik aurrera eskolara itzuli daitezke. Elgoibarren, baina, Iñaki Odriozola Elgoibar BH Institutuko zuzendariak esan du laguntza behar duten ikasleak soilik itzuliko direla, eta ez dela astelehenean izango, baizik eta hilabete amaieran. Honi lotuta, ekainaren erdialdera unibertsitateko hautaprobei prestatzeko eskolak berreskuratuko dituzte. IMHn, unibertsitateko eskolak on-line ematen jarraituko dute, eta zikloei buruzko erabakia hartzeke zuten oraindik edizio hau ixteko orduan. Mekan ere bilerak egiten zebiltzan, itzulera antolatzeko. DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. mailako eta Erdi Mailako eta Oinarriko Lanbide Heziketako 1. mailako ikasleak, berriz, maiatzaren 25ean izango dute eskolara itzultzeko aukera. Eskolara itzultzean babes-neurriak bete beharko dituzte: 1,5 metroko tartea utziko da eskolan batetik bestera; ikasleek, irakasleek eta gainerako hezkuntza-profesionalek musukoa jantzi beharko dute; sarrera-irteerak mailakatuta egingo dira; jolastokian txandak ezarriko dituzte; eta ez da jantzikiko zerbitzurik izango. Hori dela eta, ikastetxeek ordutegiak egokitu beharko dituzte.

Miloi bat euroko inpaktu positiboa lortzeko plana aurkeztu du Elgoibarko Udalak



Hurrengo bi urteetako egoerari aurre egiteko berrakribazio plana aurkeztu du Elgoibarko Udalak, eta horren arabera, aurten 540.000 euro baino gehiago emango dituzte zerbitzuak, merkataritza eta ostalaritza suspertzeko. Datorren urtean, berriz, 375.000 euro inbertituko dituzte alarma egoerak kaltetutako herritar eta enpresa txikien beharizanei erantzuteko. Alarma egoerak herriko zerbitzu, merkataritza eta ostalariengan eragin duen kalte ekonomiko handia arintzea da berrakribazio planaren helburua. Hala, berrakribazio plan honen bitartez milioi bat euroko inpaktu positiboa sortzea aurreikusten dute urte eta erdian. Bestalde, Udalaren lehen kalkuluen arabera, diru-sarrerak 500.000 euro inguru murriztuko zaizkie aurten. Zenbateko honetan Kirok Patronatuko abonua eta ikastaroen etetea eta dendariak zein ostalariei zabor eta terrazaren tasaren kobrantza etetea sartuko lirake. Ane Beitia alkateak, eta losu Arraiz eta Maialen Gurrutxaga zinegotziek eman zituzten planaren zehaztasunak prentsaurrean, herriko ostalaritzako ordezkariekin batera. Albiste honi buruzko informazio osatuagoa irakurtzeko: www.barren.eus

2020ko zenbakiak

Guztira: 642.500 euro

- Merkataritza eta zerbitzuetarako bonuak: 350.000 euro. Horietatik erdia, 175.000 euro, Udalak ipiniko ditu.
- Ostalaritzako bonuak: 25.000 euro (Udalak ordainduko du guztia).
- Kaleen dinamizaziorako: 40.000 euro.
- Kultur eragileekin burutzeko dinamizazioa: 40.000 euro.
- Merkataritzaren dekorazio eta apainketarako: 15.000 euro.
- Zaborrak ez kobratzea hiruhileko batean merkataritza, zerbitzu eta tabernariari (220 onuradun): 57.500 euro.
- Terrazak ez kobratzea egoerak irauten duen bitartean: 15.000 euro.
- Gizarte ongizateko partiden errefortzurako: 100.000 euro.

2021eko zenbakiak

Guztira: 377.500 euro

- Merkataritza eta zerbitzuetarako bonuak: 240.000 euro. Hauetatik 120.000 euro Udalak ipiniko ditu (%50).
- Kaleen dinamizaziorako: 40.000 euro.
- Kultur eragileekin burutzeko dinamizazioa: 40.000 euro.
- Merkataritzaren dekorazio eta apainketarako: 15.000 euro.
- Zabor tasen jaitziera: 42.500 euro.

Konpostatzeko zabor poltsak, ohiko lekuetan


Debabarreneko Mankomunitateak zabor-poltsa konpostagarrien banaketarako puntu gehiago ezarri zituen koronabirusak eragindako alarma egoeran, baina aste honetatik aurrera, lehenago finkatutako tokietan eskuratu daitezke. Elgoibarraren San Roken (kiroldegia) eta San Frantziskon (King-Kong), eta Mendaron, anbulatorioan.

Bigarren fasera arte, meza eta hiletarik ez

Elizako liturgian parte hartzen duten pertsona gehienak adinekoak dira, beraz, arrisku taldekoak. Ondorioz, Elgoibarko San Bartolome parrokiako batzordeak erabaki du meza eta hiletarik ez egitea bigarren fasera arte. Maalako eliza, bestalde, momentuz itxita mantenduko dute.

Birziklapenak gora egin du alarma egoeran

Debabarrena Mankomunitateak zerbitzua ematen duen herrietan gora egin du birziklatze datuak alarma egoeran, eta egungo birziklapen-tasa %49,63koa izan dela jakinarazi du Debabarreneko Mankomunitateak. Otsailarekin alderatuta, organikoaren bilketa bereizia %13,86 igo da martxoan: 441.744,78 kilo guztira; 6,07 kilo biztanleko. Gainerako bilketetan, nabarmentzekoa da plastikoaren birziklatze tasa %18,7 hazi dela (27.920 kg. izatetik, 1,76 kg/bizt., 151.840 kg izatera pasa da martxoan, 2,09 kg/bizt.) eta beira-bilketa %42,56 igo da (127.920 kilotik, biztanleko 1,76, 182.362 kg-tara, biztanleko 2,51 kg). Paperaren tasa, bestalde, %8,28 igo da (231.522 kilotatik, 3,18 kg/bizt., 250.695 kg-tara, 3,44 kg/bizt.). Errefusarena %50,37koa izan da.



▶ IÑAKI ARREGI

MENDAROKO ALKATEA

La bi hilabete pasatu dira Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuenetik, eta arintze fasean gaude orain, zehazki, lehenengo fasean. Tarte hau, Madrilak konfinamendua ezarri zuenetik gaur artekoa nola bizi izan duen galdetu diegu Iñaki Arregi Mendaroko alkateari, bai eta koronabirusak eragindako kalteak arintzeko Udalak hartu dituen neurriak zeintzuk izan diren ere. Arregik nabarmendu du Udala eginahalak egiten ari dela inor ez dadin atzean gelditu.

- AINARA ARGOITIA -

♦ **Martxoaren 14an ezarri zuen Espainiako Gobernuak alerta egoera. Bezperan itxi zenuten jubilatuen egoitza eta errenkadan etorri zen gero eraikin publiko guztien ixtea eta kultur ekitaldi eta bestelakoen atzeratzeak. Zer balorazio egiten duzu orain artekoaz?**

Garaiz jokatu genuen eta herrian sumatzen zen kezkarri erantzun azkarra ematen saiatu gara hasieratik, beti herritarren osasuna bermatze eta babeste aldera. La bi hilabete daramatzagu konfinamenduan eta herritarren erantzuna bikaina ari da izaten. Sakrifizio handia egiten ari dira herritarrak, bai eta osasun arreta eta lehen mailako beharrianak asetzen dizkiguten zerbitzueta-koak eta sektore ekonomiko ezberdinetakoak ere, zeintzuek itxi egin behar izan dituzten negozioak guztion osasuna babesteko: zerbitzuak, ostalaritza... Efortzu handia egin dugu guztiok eta ezin dugu urrats bakarra ere egin atzera.

♦ **Koronabirusak eragindako kalteak arintzeko hainbat neurri hartu ditu Mendaroko Udalak. Tartean, zerga batzuen kobrantza atzeratzea. Atzeratzea zenbatean da aringarri?**

Atzeratzea lehen neurria izan da, sektore ekonomiko ezberdinei unean bertan pisu hori kentzeko. Egun, aurrekontua moldatzeko lanetan gabiltza, orain herritarren beharrak oso ezberdinak baitira. Ezbairik gabe, koronabirusak gehien eragin dituen sektoreetara bideratu behar ditugu ahaleginak. Neurriak definitzen eta adosten gabiltza, baina argi dugu udal zerga ugari bertan behera utziko ditugula alarma egoerak iraun bitartean, eta asmoa da luzatzea, sektore hauei laguntzeko, eta baita laguntza zuzenak eskaintzea ere. Badakigu berehalako beharra dutela ostalariek, merkatariek... eta ahalik eta lasterren izango dituzte eskura laguntza. Horrekin batera, herriko kontsumoa bultzatzeko neurriak hartuko ditugu. Esan bezala, lanean gabiltza neurriak finkatzen, eta azkar egingo dugu hori. Ziur esan dezaket Udala alboan izango dutela, bai herritarrek eta baita, noski, ehun ekonomikoak ere.

♦ **Etiketarik ezin duten adineko eta mendekoentzako laguntzak ere iragarri zenituzten. 70 urtez gorakoei deika hasi zireneten. Zer jaso duzue dei horietan?**



“Ziur esan dezaket Udala alboan izango dutela herritarrek”

Eskertza mezua izan da. Jada Mendaron abian genuen etxeko laguntza zerbitzua, eta hori indartzeaz gain, herriko adinako guztiei deitu diegu euren beharrak ezagutzeko eta behar horiei erantzuna ematen saiatzeko. Hainbati janaria, sendagaiak edota bestelako beharrak eraman dizkiogu etxera, edota hondakinak atera. Ez dira zerbitzu asko eskatu, baina herritarrek asko eskertu dute.

♦ **Zer balorazio egiten duzue gaztetxoan etxealdia arintzeko sortu zenuten ‘Etxean goxo’ ekimenaz?**

Etxean konfinatuta egotea guztiiontzako da gogorra, baina, bereziki, gaztetxoentzako, duten bizitasunagatik eta egoera ulertzeko unean izan ditzaketen gora-beherengatik. Gure asmoa etxean egon beharreko unean gazteak gustura, alai, entretenituta, eta aldi berean, balioak ikasiz egotea izan da. Baliabide bat gehiago berentzat, beren adinera egokitutakoa, eta euskaraz. Lu-

dotekan edo Gaztelekuan eskaintzen duten zerbitzua egokitu dugu konfinamendu garaia.

♦ **Eudelek Udalei banatu behar zizkien 300.000 maskara erretiratu behar izan zituen. Iritsi dira Mendarora?**

Bai, iritsi dira, baina ez guk nahi beste. 2.500 herritar arteko populazioa duten herriei dagokien kopurua bidali digute guri, 250. Ez dira asko eta aztertu behar dugu nola banatu.

♦ **Udalak aurreikusita zituen lanetatik zeintzuk daude geldiezinbestean? Zein da Mendaroko Udaleko langileen egoera? Zein zailtasun dituzue?**

Alarma egoera ezarri zenetik telematikoki egin du lan Udalak, posible izan den alorretan. Beharrezkoa den materiala eskaini zaie langileei eta egoki jardun dugu. Udal batzordeak ere era telematikoki egin ditugu. Aurreikusiak genituen lizitazioak geldirik daude, epe administratibo oro geldirik dagoelako. Hori bai, Udalak prest du prestatu beharreko dokumentazio guztia, alarma egoera eten bezain pronto lehen unetik abian jartzeko. Azpilgoetako berrurbanizaziorako pliegoak eginak daude, baina lizitazioa egin ezinik, eta gimnasioaren lizitazioa egina dago, baina adjudikazioa geldirik. Udal eraikinetan, udaletxean eta gainerakoetan, garbiketa sakonak egin dira. Agintzari ere egokitzen ari dira egoera honi dagozkion zerbitzu desberdinak eskaintzeko. Herritarrak asko eskertzen ari dira, eta horrela zerbitzu guztiak egoera berrira moldatzen ari dira.

♦ **Zein harreman izan duzue tarte honetan herriko dendari eta ostalariekin? Zeintzuk dira sektore honi laguntzeko martxan jarri dituzuen laguntzak?**

Ostalaritza, merkataritza eta zerbitzuetakoekin hasieratik egon gara harremanetan euren zailtasunak eta beharrak denon artean aztertzeko. Telematikoki hasi ginen, telefonoz eta emailez, eta zailtasunak eta beharrak jaso ondoren, bilera egin genuen udaletxean maiatzaren 8an. Kezka nagusiak ezjakintasunetik datoz. Zein baldintzatan ireki behar duten, zein babes neurri hartu behar dituzten... Bestalde, Udalak orain arte hartutako neurriak hauek dira: zaborren tasaren %50 kobratuko zaie itxita egon direnei; terrazan zergarik ez zaie kobratuko urte guztian, eta gainera, terrazak handitzeko erraztasunak emango zaizkie aparkalekuak kenduta. Dirulaguntza zuzenak ere izango dira itxita eduki dutezentzat, baina hori oraindik ez dago guztiz zehaztuta, Eusko Jaurlaritzak aterako dituen dirulaguntzen zain gaudelako, ez daitezen Udaleko dirulaguntzekin solapatu edo biderkatu. Gerta daiteke bateragarriak ez izatea, eta hori dena azaldu zitzaizen bilerara etorri zirenei.

♦ **Egoera honek errazik ez du ekarri inorentzat, baina lehen okerren zeudenen egoera are okerragoa da orain. Zer behar ikusi dituzue eta nola ari zarete erantzuten horiei Ongizate Sailetik?**

Hainbat alorretan jardun dugu Ongizate Sailetik, premisa nagusi batekin: inor atzean ez gelditzea. Horretarako hiru bidetan jardun gara: arestian aipatu bezala, 70 urtetik gorako herritar guztiei deitu diegu eta harreman-jarioa etengabea izan da. Bestalde,

etxez-etxe laguntza zerbitzua indartu dugu: Udalak arreta areagotu du erabiltzaile orori deitu eta zerbitzuaren errefortzua eskainiz. Gaur egun Mendaron 13 erabiltzaile daude. Baliabideak areagotu ditugu, eta zerbitzua egokitu dugu koronabirusari erantzuteko. Lehenetsuna zaintzari, erosketa zerbitzuari (elikagaiak eta sendagaiak), zaborra ateratzeari... eman diegu. Horrez gain, Mendaroko Udalak etxegabeei babes eta laguntza eskaintzen dihardu. Herrian bi pertsona zeuden egoera horretan, eta Udalak, martxoaren 18tik, beraiekin adostu ostean, Mendaroko Kultur Etxean eman die aterpea. Egunean hiru jatordu eta garbiketa zerbitzua eman diegu. Orain eskualde mailako erantzuna ematen ari gara, Erromesentzako Debako Aterpea etxegabeei eskainiz.

♦ **Konfinamendu egoeran indarkeria kasuak areagotu egin daitezkeela ohartarazi dute. Zer igarri duzue Mendaron? Zein protokolo ezarri dituzue?**

Herritarren konfinamendu egoeran Udala are eta arduratuago dago etxean indarkeria matxista jasaten edo jasan ahal duten emakumeekin. Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio eta arreta-zerbitzua eta Gizarte Larrialdietako Foru Koordinazio zerbitzuak ditugu abian. Biktima diren emakume guztiak artatzen ditugu bi zerbitzuen bitartez, eta, baita ere, emakume horien inguruko senideak eta gertukoak. Zerbitzua berehalakoa da, anonimoa, konfidentziala eta doakoa, eta ez du arrastorik uzten telefono-fakturan. Profesional espezializatuak daude atzean eta eguneko 24 orduetan erabili daiteke. Indarkeria matxistak ez du lekurik gurean. Mendarok, ezetz!

♦ **Konfinamendua arintzeko baimenak eman dituzte kalera irteerako ere. Nola ari dira erantzuten herritarrak?**



Herritarren erantzuna krisi honen aurrean txalotzekoa izan da. Deseskalatze fase ezberdinen lehen pauso hauetan ere herritarrek arduraz jokatu dute eta ez da egoera arriskutsurik egon. Alaitasunez hartu da, gainera, haurren irteera, oso mesedegarria delako eurentzat. Baina esan bezala, segurtasun neurriak bete dira, oro har, eta herritarrei dei egin nahi diet horrela jarrai dezaten, koronabirusa atzean utzi eta atzera pausorik eman ez dezagun. Bakoarena da ardura.

♦ **Jairik ere ez dela izango aurreratu duzue.**

Bai. Santanak bertan behera uztea erabaki dugu oposizioarekin batera, baina ez dugu baztertzeko beste egitarau alternatiboren bat prestatzea. Hori aztertuko dugu deseskalatze faseak aurrera egin ahala, baina erabaki hau hartu beharra zegoen, jaiak hainbat hilabetetako prestakuntza behar izaten dutelako. Oso zaila eta gogorra izan da erabaki hau hartzea, baina osasun-agintarien gomendioak jarraituz pentsatu dugu egokiena dela. Herritarrengan pentsatzen jarrita, zaila izan da erabakia hartzea, eta batez ere ostalaritzan, merkataritzan eta zerbitzuetan duen eraginik.

♦ **Beste zerbait esan nahiko zenuke?**

Herritarrei eskertu nahi diet eman duten erantzuna eta erakutsi duten konpromisoa. Bat eginik egingo dugu aurrera, eta horretan bidelagun izango da Udala. Inor ez da atzean geratuko.



FASETIK FASERAKOIA - Komertzioak

Neurri bereziak hartuta, baina zabalik



400 metro koadro baino gutxiagoko denda duten merkatariek eta aurrez aurreko hitzorduen bitartez lan egiten duten profesionalek lanari ekin ahal izan zioten berriro maiatzaren 4an, bai eta hainbat ostalarik ere, baina etxera eramateko janaria prestatzeko bakarrik. Etxebizitzetan zein lokaletan eraberritze lanak egitea ere baimenduta dago, beti ere etxeok ez daudenean eta obrak egin behar diren eraikineko gunea hutsik dagoenetan. Neurri bereziak hartu behar izan dituzte denek, eta horrek lan-zama handitu die, baina hala ere, pozik daude asko eta asko, jardunari berrekin ahal izan diotelako.

- AINARA ARGOTIA -

MARIA URIZAR, Maria Urizar ile-apaindegikoa

“Erabat geldi egon nintzen lehenengo hiru-lau asteetan, etxean egoteko agindu zigutelako denoi. Gero hasi nintzen ile-apaindegian neuzkan produktuk, tinteak-eta, etxera eramaten bezeroei, bazeudelako lanera joan beharra zutenak eta txukun egon nahi zutenak. Maiatzaren 5ean zabaldu nuen ile-apaindegia eta nahiko gogorra egin zait hasiera, ordu asko direlako. Izan ere, ezin dituzu bi bezero hartu ordu berean, adibidez bat tintea emanda dagoen bitartean besteari egiteko egin behar zaiona. Babes-neurri guztiekin jardun behar gara, gainera, lanean: maskara, eskularruak, kareta... eta ez daukagu askatasunik lan egiteko. Erabilitako dena desinfektatu behar da gero, eta gogorra ari zait egiten, gogorra zentzu guztietan. Iruditzen zait denok galduko dugula dirua. Pena bat da, baina hori da daukaguna. Elkarri laguntzea dagokigu: merkataritza txikia sustatu, herrian erosi... Beti esaten dugun hori egin beharko dugu, baina orain, are gehiago.



IÑAKI BASURTO, Bire etxe-tresnetakoa

“Nahiko ondo moldatu gara alarma-egoera ezarri zutenetik. Garraio zerbitzuetakoak ez dira ohi moduan jardun, eta igarri dugu hori, guk gauza asko kanpotik ekartzen ditugulako, baina gainerakoan, denda itxita izan arren, lana izan dugu guk. Bezeroei sortu zaizkien behar gehien erantzun ahal izan diegu, ez orain arteko epeetan, lehen esan dizudan kontu horrengatik, baina erantzun diegu. Jendeak deitu digu. Etxeko-tresnetan beti sortzen dira konpondu beharrak-eta. Hozkailuak, garbigailuak, bitroak... behar-beharrezko zaizkigu gaur egun etxeetan, eta bezeroei sortzen zitzaizkien arazoei erantzuteko egon gara gu. Kezkatzen nau etorkizunak, baina. Langabe-kopurua asko handitu da, ekonomian eragin handia izan du honek eta iruditzen zait kontsumoa ere apalduko dela. Ez dakigu hau zenbat luzatuko den, ezta agintariak eurek ere, eta badaezpada, jendea geldi dago. Kontsumoan igarriko dugu.



OLAIA MARTINEZ, Olaia Martinez estetikakoa





"Facebooken eta Instagramen iragarri nuen maiatzaren 11n zabalduko nuela, astelehenarekin, baina lehentasuna eman nahi izan diet edadetuei, eta joan zen astean [maiatzaren 4tik 8rako] arratsaldez etortzen egon nintzen zentrorra haiei zerbitzua ematera. Hilaren 11n zabalduko nuela irakurri zuten batzuek esan zidaten mugimendua ikusi zutela hemen joan zen astean, baina horregatik izan da. Etikoki egokiena iruditu zaidana egiten jardun naiz. Astelehenetik ordutegi normalarekin nabil lanean, 9:00etatik 19:30ak arte, baina astelehenetik barikura egingo dugu lan, eta zapatuan, itxi. Astebarruko ordutegia zabaldu egin dugu. Lehen, astelehenetan, 10:00etatik 18:00etara ematen genuen zerbitzua, baina orain gainerako egunetako ordutegi berdina emango dugu, eta aldiz, zapatuetan ez dugu zabalduko. Zapatuetako lana maki-latzea izaten da bereziki, ezkontzetarako eta ospakizunetarako, baina orain halakorik ez dagoenez, erabaki dut egokiagoa dela astelehenean sartzea ordu horiek eta asteburua libre izatea, kontziliatzeko, umeekin-eta egoteko, kaos bat delako hau. Guk ikusten duguna da amama

asko bakarrik bizi direla eta konfinamenduan alabak ibili zaizkiela atzazkalak konpontzen, behatzen atzazkalak mozten eta bizartxoak kentzen. Hona etortzea izaten da askorentzat asteko irteera, eta orain, ile-apaindegira eta hona etorri ezin izan direnez, iruditu zait haiei lehentasuna eman behar niela. Alarma egoera ezarri zutenerako lotuta geneuzkan hitzordu asko, eta bezero horiek ezin izan ziren etorri. Horiei deika jardun naiz, ilaran, eta hasi, horiekin hasiko naiz. Aldi berean, zita eske deika ari direnen telefonoak apuntatzen ere ari naiz, batzuekin bukatu bezain laster, berriekin hasteko. Lanean hasteko desiratzen gaude gu, eta bezeroak etortzeko gogoz, beraz deitu dezatela lasai. Bezeroei esan diet orduan etortzeko, eta aurretik baldin badatoz, zain egoteko kanpoan. Ez joteko tinbrerik, gu lanean egongo garelako eta ezingo dugulako haien ordua iritsi arte zabaldu. Bezeroek badakite maskara eta eskularruak jantzita etorri behar direla.

JAVIER MUÑOZ, Fisio&mas zentrokoa

"Alarma egoera honetan kirol arloko zerbitzua ematen jarraitu dugu bide telematikoz, baina fisioterapia zerbitzua geldirik izan dugu, orain hiru bat astera arte. Larrialdi-zerbitzua eskaini dugu gaur arte (maiatzak 4). Medikuek eta erizainak etorri zitzaizkigun batez ere lehenengo hiru asteetan. Lan-zama handia izan dute osasungintzako profesionalak eta tentsio handiarekin jardun dira lanean; eta hori igarri dugu. Joan zen astean hasi ginen kirolariekin lanean, baina larrialdiak bakarrik artatzen genituen. Jendea etxean jardun da kirola egiten eta muskuluen hausturak, lunbalgiak... horrelako patologiak izan dituzte gehienbat. Ohiko kirolariak hasieratik jardun dira zeozertan, baina konfinamenduan jende gehiago hasi da kirola egiten eta hasiberri horiek izan dituzte arazo gehien. Hamabost bat eguneko tartean nabarmen ugartuko dira halako kasuak, kirola golpera egiten hasi delako jende bat. Bestela, txandak ematen gaur hasi gara. Baina suabe-suabe hasi gara, orain, protokologoak agintzen duen dena betetzeko denbora gehiago behar dugulako eta bezero batetik besterako tartea luzatu behar izan dugulako garbiketa eta desinfekzio lanak egin ahal izateko. 6-8 bat minutu behar izaten ditugu horretarako. Gure lan-karga handitu egin da, baina ez dago besterik: egokitu egin behar gara egoera berrira. Norbere Babeserako Ekipoarekin eta eskularruak, maskara eta babes-pantaila jantzita egin behar dugu lan. Bero handia ematen dute horiek denek eta mugimendua ere zailtzen dute, baina ez dago besterik. Bezeroei, etorri aurretik, galdetegi bat pasatzen diegu, COVID-19arekin loturarik izan duten galdetzeko. Maskara kirurgikoa ekartzeko eskatzen diegu denei eta sartzeaz batera komunera bidaltzen ditugu eskuak garbitzera. Gero, behin gelan sartuta, arropa guztia aulki batean utzi behar dute, eta dakarten gainerako guztia, kaxa batean. Ahalik eta gauza gutxien ukitu behar dute hemen. Joaten direnean dena garbitu behar dugu. Kutxa eta aulkia pasatzen ditugu gel desinfektatzailearekin, bai eta ohatila eta erabili ditugun gainerako gailu guztiak ere, beste likido batekin, material sentibera delako oso erabiltzen duguna. Ondoren, lurra garbitzen dugu, eta leihoak zabaldu, gela egurasteko.





FASETIK FASERAKOA - Komertzioak

CRISTINA GARCIA, Cristina Garcia estetikakoa



"Etxean egon naiz bi hilabetez, lanera hasteko desiatzen. Zabaltzeko eguna iristen zitzagunerako prestatzen egon naiz, zoom bidez ikastaro batzuk egiten eta zabaltzen genuenerako protokoloa aztertzen. Ez dugu bezeroekin aurrez aurreko harremanik izan, baina bai gure lanarekin. Bezero batzuekin telefono edo whatsapp bidezko harremana ere mantendu dut. Jakin nahi nuen nola zeuden eta proposatu dizkiet ariketa batzuk ere bai batzuei. Eta orain, hemen gaude, eskularru, maskara, kareta eta denak jantzita lanean, guk ezin dugulako bezeroekin bi metroko distantzia hori mantendu, bistan denez. Urduri pasatu genuen lehenengo eguna, ez genekelako gu geu nola moldatuko ginen, ez eta bezeroak nola etorriko zitzagun ere. Hidroalkoholak eta lixiba erabiltzen ditugu dena garbitzeko barruan. Bezero bat joan eta bestea etorri bitartean dena garbitzen dugu, eta nahiko ondo ari gara moldatzen. Baina, bai, egoera honek kalte handia egin digu. Gastuak berdin-berdin ordaindu behar izan ditugu eta bi hilabetez diru-sarrerarik

gabe egon gara. Gobernutik laguntza bat jaso dugu, baina hutsa, eta autonomoen-kuota ez dut ordaindu beharrik izan, baina horixe. Moldatu egin behar egoera berrira, ez dago besterik. Jendeak behintzat oso ondo hartu gaitu eta ikusten dut bezeroak gastatzeko gogoz gaudela. Momentuz pozik gaude beraz.

IBAN GONZALEZ, Gobike bizikleta dendakoa

"Arrabola izan da konfinamendu aldi gogorrean bezeroek gehien eskatu diguten produktua. Denda zabaldu ezin genuenez, on-line bidez jardun gara, eta Internetek lagundu digu garai zail hauetan apur bat fakturatzen. Joan zen astelehenean denda zabaldu ahal izan genuen, baina bezeroak aurrez ordua eskatuta etorri behar izan ziren derrigor lehenengo aste horretan. Babes-neurriak ere hartu behar ditugu, jakina. Bizikletak jasotzen ditugunean garbitu egin behar ditugu, tallarrean aldaketaren bat egin ostean, berriro garbitu behar ditugu, eta baita bezeroari entregatu aurretik ere. Hori dena egin ahal izateko, dendako arreta zuzeneko ordutegia apur bat murriztu dugu, protokoloak agindutako bestelako lan horiek egin ahal izateko. Gehienbat tallarreko lanarekin eusten diogu. Osagarri batzuk ere ari gara saltzen, baina gutxi. Iruditzen zait datozen hilabeteetan tallarreko lana izango dela gurean gehienbat, jendea kirol gehiago egiten ari delako orain. Osagarrietan gutxiago fakturatuko dugula iruditzen zait, ekonomian eragina izan duelako honek eta ez dakidalako jendeak zer gogo eta ahal izango dituen gastatzeko.



 **BARREN sare sozialetan**



facebook.com/barrenaldizkaria

twitter.com/barreneus

instagram.com/barrenaldizkaria



FASETIK FASERAKOA - Ostalaritza

Terraza gosez zeuden herritarrak

Astelehenaz geroztik, terrazak zabaltzeko aukera dute ostalariak, baina %50ean. Hala ere, Elgoibarko Udalak nahiz Mendarokoak terrazak handitzeko aukera eskaini diete tabernariei, neurri hori arintze aldera. Kezka zuten tabernariak jende-mugimendurik izango ote zen, baina pozik agertu dira herritarrak tabernarako gogoz ikusi dituztelako, eguraldiak lar lagundu ez arren. Bezeroak ezin dira tabernara sartu eta horrek berak nahiz bete behar dituzten gainerako baldintza guztiak zaintzeak, baina, zaildu egin die eguneroko lana ostalariari.

- AINARA ARGOITIA -



ENERITZ BURUNZA, Gabi jatetxekoa

“Ez da erraza izaten ari egoera hau. Laguntzak ere ez dira oso handiak izan. Elgoibarko Udala, nolahi ere, ondo ari da portatzen, guri behintzat laga digulako terraza osoa ateratzen eta zakarren kontuan ere deskontua izan dugulako, baina gastuak handiak dira eta poliki-poliki irten beharko gara hemendik. Trafikoa gelditzen denean terraza nahi beste jarri dezaket hemen, eta alde horretatik ondo. Gaur, lehenengo egunean, gelditu ere egin gabe nabil, kafeak ateratzen. Neu bakarrik hasi naiz lanean, ikusi nahi nuelako bezeroek nola erantzuten zuten, baina ikusten badut mugimendua dabilela, jarriko dut langileren bat. Egia esan, dena egin beharra gogorra da. Batzuetan zaila egiten zait zein mahai libratu den konturatzea, garbitzeko-eta, eta zerbitzatzea ere moteltzen du honek denak, baina jendea, momentuz, lasai dago, eta ondo. Asteburuan, beharbada, hasiko gara ogitartekoak prestatzen ere”.



JUAN JOSE LOIOLA, Txirristaka tabernakoa

“Lehenengo kolpea gogorra izan zen, baina egia esango dizut: osasunak eskertu dit gelditzea ere. Aldi baterako enplegu etetea eskatu genuen geuk ere, baina ez kosta gabe. Dena telematikoki egin behar zen, eta eskertu nahi diet Morroskillokoei, eurek lagundu zidatelako paperak zuzentzen. Aldi baterako enplegu eteteak arnasa pixkat eman digu ostalarioi, nahiz nik oraindik ez dudan ezer kobratu, baina behintzat langileek bai. Argindarra bi zatitan ordaintzeko aukera ere eman dute, baina egia esan laguntza handia ez da, orain ordaintzen ez dena gero ordaindu beharko dugulako. Zabaltzeko aukera izan arren, nik neuk momentuz ez zabaltzea erabaki dut, terraza txiki honen eta tabernara sartu ezin dela, ez zaidalako errentagarria. Udalak aukera eman dit terraza handitzeko, eta laguntza ekonomikoa ere agindu digu, pozgarria dena, baina guretzat laguntzarik handiena da zabaltzen dugunean jendea tabernara etortzea. Udalak laguntzen badigu, apurka-apurka diru hori herriari itzuli nahi nioke nik, herrian egiten diren ekintzak babestuz-eta. Zabaltzea, bestalde, ez da erraza izango, baldintza zorrotzak bete behar ditugulako. Gauza batzuk ez ditut ulertzen. Maiatzaren 18an taberna zabaltzen dugunean metro eta erdi utzi behar dugu mostradorean, kalean bi metro gorde behar ditugu batetik bestera, eta terrazan, mahai txiki baten bueltan, hamar lagun eseri daitezke, eta denok dakigu 90 zentimetroko mahai baten bueltan ezin direla distantziak mantendu. Kezkatzen nau horrek. Denbora honetan zerbait ikasi badut, hala ere, da gauzak lasaiago hartzen eta garbi daukat hau ez dela lasterketa bat, zeinek aurretik zabaldu. Nola lan egin behar dugun ere ikasi beharko dugu.



FASETIK FASERAKOA - Ostalaritza



MANU REY, King Kong tabernakoa

“Luze egin zaigu taberna itxita izan dugun denbora guzti hau, baina gaur [hilak 11] zabaldu dugu eta egun lasaia ari da izaten momentuan. Terraza handitzen laga digu Udalak eta etxera eramateko jana prestatzen ere hasi gara, apur bat osatzearren eskaintza, tabernara ezin delako sartu momentuan. Hasita geunden gauzatxo batzuk ondoko denda uzten, ikusteko zer harrera zuen, eta gaurtik tabernak bertan eskatu ahal izango dira, eramateko. Eguraldiak ez digu lagundu lehenengo egun honetan, baina apurka-apurka ari da jendea etortzen. Nik uste dut jendeak oraindik beldurra duela eta hori igarri dugu terrazan, mahai bakoitzeko pertsona bat edo gehienez bi izan ditugulako. Pantaila jarri dugu taberna kanpoan, barran, serbilleteroak eta erretiratu ditugu, eta mahaiak lixibarekin eta gel desinfektatzailearekin ari gara garbitzen. Errentagarria ez da baldintza hauetan zabaltea eta horregatik ari gara gu ere ahal dugun heinean eskaintza zabalitzen, etxera eramateko jatekoa eta eskainiz, baina hasi beharra zegoen noizbait eta hasi gara.

MIREIA RICO, Txarriduna hotelekoa

“Eskolako lehenengo egunean moduan ari gara, dena delako berria. Bezeroa jarri eta jaikitzen den momentuari adi egon behar gara, dena garbitu behar dugulako. Bestela gure lana lehenengo bera da, baina baldintzek moteldu egin dute gure lan-erritmoa. Hala ere, bezeroak etortzeko gogoz zeudela iruditzen zait eta pazientziarekin hartu dutela. Hori bai, galdu xamar igartzen dut jendea. Ez dakite tabernara sartu daitezkeen, non eskatu behar duten tragoa..., baina mugimendua dabil herrian eta bezeroak lasai-antzean ikusten ditut. Langileok formazio saio txoreen bat egin dugu egunotan taberna zabaldu aurretik eta ari gara egokitzen egoera berrira. Maskara eta eskularruak jantzita ari gara lanean. Hotela ere gaur zabaldu dugu [hilak 11], baina bakarrik lo egiteko aukera dago. Gaur bertan erreserba batzuk jaso ditugu Bartzelonako langile batzuen. Gaur dira iristekoak. Egia da, hala ere, ekainaren bukaera alderako ere iritsi zaizkigula erreserba-eskara batzuk Herbehereetatik *Booking* bitartez”.



ADRIEL REYES, Mahats ardandegikoa



“Sei mahai jartzeko aukera eman digu Udalak, terraza pare bat metroan handituta. Pare honetatik hasi eta egurrezko eserlekuetaraino erabiltzeko aukera daukagu orain, baina gaur bi mahai bakarrik jarri ditugu, eguraldia ere dudakoa delako. Hala ere, eman diguten tarteak ez dakit nahikoa den, kontuan izanda mahaitik mahaira tarte handia laga behar dugula. Apur bat gehiago eman izan baligute, hobeto, baina... Taberna garbitzen eta ari gara gaur bereziki. Hainbeste egunean geldi egonda gauza batzuk izorratu zaizkigu eta horiei soluzioa ere eman behar diegu. Hozkailu batek, adibidez, ez du hozten. Ez dakit errentagarria zaigun. Jendea datorren ala ez da hemen kontua, eta eguraldiak ere baldintzatzen du hori. Mugimendu gutxi dabil momentuan. Bi lagun ari gara lanean, bat barran eta bestea mahairik mahai zerbitzatzen eta garbitzen. Bi lagun gaude, baina dabilen mugimendurako bat egonda ere, nahikoa.



NOEL ISASI, Aita Agirre tabernakoa

“Lau bat hilabete dira taberna zabaldu genuela eta denborarik ere ez dugu izan diru pixkat egiteko. Gastu pila bat izan ditut taberna zabaltzeko, eta alarma egoeratik itxi behar izatea latza izan da niretzat. Baina ia ba pixkaka-pixkanaka hastea daukagun zerbeitetan eta ia ba jendeak erantzuten duen. Gaur terraza zabaldu dugu. Arazo batzuk izan ditut Udalarekin horren gorabeheran. Terraza zabaltzeko aukera eman didate, hemen, kanpoan, baina nik hiru hilabete hauetan terraza arkupeetan jaritzeko aukera eskatu diet. Hemen nabil, borrokan, baina uste dut emango didatela aukera hori eraikina itxita dagoen bitartean. Bestela, tabernara ezin da sartu. Neu nabil kanpora zerbitzatzen. Egia esan ez zaigu errentagarria orain baldintza hauetan zabaltea, taberna zabaldua gastua ere handituko delako, baina noizbait hasi behar ginen, eta hastea erabaki dut”.

IÑAKI KONDE, Malape tabernakoa

“Oraindik ez dakit zenbaterainoko terraza jarri ahal izango dudan, baina mahai batzuk jarri ditut gaur lehenengo egunean, eta jendea ari da etortzen eta errespetatzen. Guretzat sekulako lana ari da izaten, baina, hau. Neskalguna eta biok gaude. Bera barran dago, nik eskatutakoa ateratzen, eta neu nabil kanpoan mahairik mahai, tabernara sartzea debekatuta dagoelako. Bezero bat jaikitzen denean dena desinfektatu behar da ondo eta hori lan handia da guretzat, baina momentuan mugimendua dabil eta gu nahiko pozik gaude. Kezka hori bageneukan, egia esan. Ikusi beharko da arratsaldeetan zer joera hartzen duen jendeak.



BITTOR ALBERDI, Aitzbeltz tabernakoa

“Martxoaren 15ean itxi nuen nik taberna eta berez astelehenetik terraza zabaltzeko aukera daukat, baina ez zabaltea erabaki dut, ez zaidalako errentagarria eta bezeroentzat ere ez delako eroso baldintza hauetan tabernara etortzea. Udalarekin batzartu gara gaur [Maiatzak 8], eta eurek ere ez dakite garbi zer esan. Denok gaude antzera. Behintzat laguntza batzuk agindu dizkigute eta ia, egun handiak galdu ditugulako alarma egoera ezarri zutenetik gaur arte. Motxaila Eguna galdu genuen, ekainaren 6an ez da Trinitaterik izango eta santanak ere bertan behera gelditu dira. Aurtengo urtea galdutzat eman dut nik. Orain alarma egoeratik gaude gauden moduan, baina gure negozioak oso lotuak daude jendearen ahal ekonomikoari eta umoreari, eta zer izango da gero, udazkenean? Eta deskuidoan beste brote bat balego, zer? Zer etorriko da, itxialdi gogorra berriro? Nork eutsiko dio horri?

Nik neuk langile bat daukat eta hilaren 16tik aldi baterako enplegu etetetea dago, baina gaur gaurkoz oraindik ez du da gokia kobratu. Gastuak berdin-berdin ordaindu behar ditugu guk eta diru-sarrerarik ez dago. Egoera zaila da.



MEDIKUNTZA

Koronabirusaren pandemiak une larriak eragin ditu Euskal Herriko hainbat ospitalean, baina Mendaroko ospitalean kontrolpean izan dute uneoro egoera. Iratxe Ocerin ospitaleko zuzendari medikuak eman digu Mendaroko ospitaleko berri.

- AINHOA ANDONEGI -

IRATXE OCERIN

Mendaroko Ospitaleko zuzendari medikua

♦ Alarma egoera honetan, nola zaudete antolatuta?

Gure ESlak 2 ospitale ditu, Mendarokoa eta Eibarkoa, eta horrez gain, lehen arretarako bost unitate ere baditu. Hiru arreta-eremu horien helburua pandemia bere osotasunean kudeatzea izan da: Mendaro Ospitalean, ospitaleratzeko beharra duen paziente akutuari ematen diogu arreta; paziente subakutuari Eibarko Ospitalean ematen diogu arreta hori eta koronabirusarekin zerikusia duten edo ez duten paziente ambulatorioari, berriz, lehen mailako arreta guneetan.

♦ Zeintzuk dira, une honetan, zuen zailtasun handienak?

Eguneroko lana profesional-talde desberdinak koordinatuz egiten da; alde batetik, pazienteekiko laguntza-lana dago, eta, bestetik, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa, Era berean, pandemia hasi zenetik gerta daitezkeen egoerei aurrea hartzen ere egiten dugu lan. Zailtasunik handiena ziur-gabetasuna kudeatzea izan da, eta testuinguru horretan, aurrekaririk gabeko osasun-larrialdi egoerari aurre egitea, baina langileen profesionaltasunari eta talde-lanari esker, une bakoitzeko beharretara egokitzea lortu dugu.

♦ Konfinamenduari eutsi arren, kalera irteteko baimen gehiago dago orain. Kezkatzen zaituzte hemendik hamabost egunerako datuek?

Pandemia-testuinguru horretan, normala da birusaren garapenari, kutsatuta eta immunizatuta dagoen biztanleriaren ehunekoa eta pertsonak kalera irteteak kutsatuen gorakadan izan dezakeen eraginari buruzko kezka izatea. Baina dagoeneko bi aste baino gehiago igaro dira jendea lanera itzuli zenetik, eta hasiera batean behintzat, ez dirudi kutsatuen kopurua nabarmen handitu denik.

♦ Zein da Mendaroko ospitaleko egoera une honetan?

Gaur egun, esan dezakegu Debabarrena ESiko arreta-guneetan egoera lasai dagoela. Larrialdietan eta ospitaleratzeeetan izan genuen egun gogorren bat pandemiaren hasieran, baina inoiz ez dugu kolapso egoerarik izan Debabarreneko ESlan. Nire ustez, funtsezko hiru elementuri esker heldu ahal izan diogu osasun-larrialdiko egoerari gure ESlan lasaitasunez: beste osasun-erakunde batzuen atzetik kronologikoki joan izanaren zortea, eta, horrela, gu hobeto prestatzeko denbora izatea;



“Inoiz ez dugu kolapso egoerarik izan Debabarreneko ESlan”

profesionalek euren burua babesteko duten erantzukizuna, pazienteak, lankideak eta euren senideak ez kutsatzeko, eta profesional guztien talde-lan handia.

♦ Birusa min handia egiten ari da, bereziki, adinekotan, baina baita herritar guztion aldarlean ere. Zein da bizi izan duzun momenturik gogorrena?

Ez dugu ahaztu behar koronabirusaren epidemiari lotutako alderdi emozionala. Profesional guztiak ahalegin handia egiten ari dira gaixoei laguntzeko, Haiek tratatu eta sendatzeaz gain, egungo teknologiarekin senideei bideo-deiak egiten dizkiete, bisitak mugatuagoak egon arren, pazienteak beren senideengana hurbiltzeko. Gure ESlan gaixoari eta senideei eskainitako arreta eta laguntza, guztiiontzako segurtasunarekin.

♦ Herritarrek txalo jotzera irteten dira egunero egiten duzuen lana eskertzeko. Zer da zuentzat keinu hori?

Gure lana aitortzea suposatzen du guretzat.

♦ Zer da Koronabirusaz ez dakizuna eta jakin nahiko zenukeena?

Txertoa iritsi arte, uste dut denori gustatuko litzaikeela entzutea mediku-tratamendu eraginkorren bat aurkitu dutela.

TURISMOA

Turismoa, geldi

Hego Euskal Herria lehenengo fasean sartu zen astelehenean, Espainiako Gobernuak hala baimenduta. Madrilek fase berrirako ezarritako irizpideak, baina, gogortu egin zituen Eusko Jaularitzak zapatuan: besteak beste, herritik irteteko debekua ezarri zuen, jardura sozioekonomiko jakin batzuetarako ez bada. Gerora, argitu zuen adinekoak, mendekoak, desgaituak edo premia egoeran dauden senitartekoak bisitatzeko, zaintzeko eta artatzeko ere irten ahal izango zela, bai eta kirola egiteko ere [herritik abiatuta beti ere]. Neurriok astelehenaz gozotik baldintza jakin batzuetan zabaltzeko aukera zuten landa-etxe eta hotelei ere eragin die; kalterako, Mendaroko Atxuri landa-etxearen kasuan. Juan Mari Aranbarri eta Maribel Bastida etxe-jabeekin izan gara.

- AINARA ARGOITIA -

MARIBEL BASTIDA Mendaroko Atxuri landa-etxekoa

◆ Nola bizi duzue alarma egoera hau? Zein da zuen egoera?

Egoera tristea da. Martxoaren 14tik itxita daukagu eta tartean hiru jai-zubi handi galdu ditugu: San Jose, Maiatzaren 1eko eta Aste Santua. Hemen ez dugu pasarako jendearekin lan egiten; hona turistak etortzen dira, eta guretzat sasoirik onenak Aste Santua, uda, Gabonak eta jai-zubiak dira. Aste Santutan Coruñatik etortzekoa zen talde handi bat eta horiek geroago etortzekotan gelditu dira, baina noiz ez dakigu. San Joseko jai-zubian eta Maiatzaren 1ean etortzekoak zirenak, berriz, galdu ditugu. Nik uste dut abuztu aldera mugituko dela zerbait. Itxaropen hori daukat behintzat. Aste honetan bertan Sevillatik deitu digu familia batek etxe osoa hartzea zenbat kostatuko ote litzaikeen galdezka. Familia txikia zen eta garesti irteten zitzaien etxe osoa hartzea, baina deitu dute. Frantses batzuek ere egin dute erreserba moduko bat ekainerako, hamabost egunerako, baina mugak zabaltzen ez baldin badituzte, zer? Ezer ez! Zer etorriko den ez dakigu, ezta zer aginduko diguten ere. Alde batetik, pozik gaude, denok osasuntsu gaudelako etxean, eta hori gauza handia da izatez, baina bestetik, kezka handiarekin bizi dugu hau. Gu geu 50 egunean kalera jaitsi gabe egon gara. Alaba jaitsi izan da astean behin erosketak egitera eta listo. Konfinatuta egoteko leku txarrean ere ez gara bizi, hemen irteteko aukera beti izan dugulako, baina horixe. Inor ez dabil hemen. Orain bizikletariak agertzen hasi dira, banaka



banaka, mendi-buelta eginez, baina gainerakoan, inor ez.



◆ Astelehenetik zabaltzeko aukera izan badaukazue, baina itxita daukazue oraindik etxea.

Bai, hilaren 11tik zabaltzeko aukera daukagu berez, baina ezarri diguten baldintza hauetan zein etorriko zaigu hona! Osasun, lan, lanbide edo enpresa arrazoiengatik ez bada ezin da herritik irten eta gurera nekez etortzen da langilerik ostatu bila. Iaz, uztail osoz langileak izan genituen, baina salbuespena izan zen. Zubietako erraustegia eraikitzen ari ziren langileak etorri ziren orduan, Donostialdean ez zutelako beste aukerarik topatu. Lan-kontuengatik datorrenarentzat urruti gaude kaletik eta turismoa egitera zein etorriko zaigu ba hona Mendarotik bertatik! Inor ez! Zabalduta ere, baldintza zorrotzak bete behar ditugu. Gela bakoitzean pertsona bakarra hartu genezake eta gune komunak, sukaldea, egongela

eta komuna, itxi egin behar ditugu. Eta zein etorriko da honaino lo egitera, gosaltera kaleraino jaitsi behar badu! Horregatik ekainaren 25era arte ez zabaltzea erabaki dugu, inguruko landa-etxeetakoekin hitz egin ostean. Gel desinfektatzaileak eta behar diren beste gauzak inguratu behar ditugu aurrera eta ondo aztertu nola egin behar dugun protokoloa betetzeko. Mendaroko Udalak agindu dizkigu gelak-eta, baina ez omen zaizkie iritsi oraindik. Nekaturretik ere agindu digute zerbait, baina ikusi egin behar. Edozelan ere, nik esan diet denei: ematen duten dena eskertuko dugula guk. Zabalduta aurretik, ondo prestatu behar gara, egoera berrira egokitzeko.

◆ Nola ikusten duzu etorkizuna?

Nahi nuke beste kolore batekoa ikusi eta ahalegina egin beharko dugu hala ikusteko, itxaropena galtzea azkena delako, baina momentuan, ilun xamar ikusten dut.



ATZERRITIK

Koronabirusa mundu mailako pandemia da, eta guretik harago ere, eragin handia izaten ari da. Elgoibartarrak han eta hemen bizi dira, eta haien ahotik jaso dugu Europako zenbait herrialdetan nola bizitzen ari diren alarma egoera.

- AINHOA ANDONEGI -



JONATAN MARTIN, argazkilaria Erresuma Batuan (Elgoibar, 1986)

“Une zailak bizitzen ari naiz. Nire kontura egiten dut lan argazkiak eta bideoak egiten, eta orain ia sektore guztia geldirik dago. Ondorioz, ez daukat diru-sarrerarik, eta nire bizitzan lehenengo aldiz, Go-

bernua eskaini dituen dirulaguntzak eskatu behar izan ditut. Erresuma Batuko prozesua askoz korapilotsuagoa da Espainiakoa baino, baina espero dut lehenbailehen lanera bueltatu ahal izatea. Ni Londresen bizi naiz. Hiri oso handia da eta milioika lagun mugitzen dira hirian zehar egunero. Garraio publikoa bete-beteta egoten da, eta oso erraza da birusa zabaltzea. Erresuma Batuko “zona zero” da Londres. Nik, zorionez, ez dut ezagutzen kutsatutako inor, baina baditut koronabirusaren eraginez gertukoren bat galdu duten lagunak. Hemengo Gobernuak hasieratik birusa kontrolpean zeukala uste zuen, Espainian bezala, eta agintarien lehenbaitasun nagusia ekonomia salbatzea izan da uneoro. Munduko

hiri handienetarikoa bat gelditzeak kostu handia dauka, beraz, hasieran ez zuten horrelako neurririk hartu. Agintariek nahi zuten biztanleria modu naturalean kutsatzea, inmunizazioa lortzeko, baina horrek heriotza kopuru handia eragin zuen, eta ospitaleak gainzeka jarri ziren. Azkenean, beraz, hemen ere konfinamendua ezarri zuten, Espainian baino astebete beranduago. Jende asko ez dago konforme erabaki horrekin, eta egia da konfinamendua ezarri arren, normaltasuna nabari dela. Espainiako Gobernuak konfinamendua ezarri zuenean ni Elgoibarren nengoan, eta han hartutako neurriekin Elgoibarko kaleak hutsik ikusi nituen. Londresera itzuli nintzenean harritu egin nintzen kaleak jendez beteta ikustean, ezer pasatuko ez balitz moduan. Zazpi aste pasatu dira ordutik eta ari dira esaten neurriak arintzen hasiko direla, baina oraindik ez dakigu noiz, ezta nola ere. Kolpe handia jasan du hiriak, eta ez dut uste berehalakoan itzuliko garenik lehengora. Egoera berrira moldatu beharko gara denok. Nire kasuan lan berriren bat aurkitzen saiatuko naiz, agian lanbidez aldatu beharko dut, eta kasurik txarrean, etxera itzuli beharko naiz”.



ELIANA BALLESTEROS, teknologia eta software aholkularia Alemanian (Elgoibar, 1979)

“Munichen bizi naiz, hiriren erdigunean, ni bakarrik. Koronabirusaren krisia iritsi aurretik ere etxetik lan egiteko aukera neukan. Orain, baina,

nire lankide guztiak ere etxetik ari dira lanean, eta egunean zortzi orduz telefonoz edo bideokonferentzia bidez aritzen gara. Ikastaro bat ere egiten ari naiz distantziara eta ari naiz egoera berrira moldatzen. Zaila egiten ari zait, hala ere. Hau guztia luze doa eta ez da erraza bakarrik egotea konfinatuta. Gurasoak ere bakarrik daude Elgoibarren, eta beraiengana joan ezin izateak urduri jartzen nau, Espainiari buruz entzuten ditugun albisteak ez direlako batere onak. Lagunak eta familiakoak ezin ikustea da gogorrena niretzat, eta gainera, ez dakigu hau guztia noiz arte izango den. Ezin dugu bidaiatu eta ez dakit noiz ikusi ahal izango ditudan gurasoak. Bidaiatzeko askatasuna kendu digute, eta hori gogorra da. Alemanian, bestela, egoera ez da txarra. Ongi pres-

tatuta gaude, eta beste herrialde batzuekin konparatuta, zorte handia izan dugu. Zainketa Intentsiboen Unitateetan 28.000 ohe gertu prest, eta lortu dute 56.000 edukitzea. Kutsatu kopurua handia da, baina heriotza-tasa apala daukagu, Erresuma Batua edo Italiarekin alderatuta. Estatu Federala da gurea, eta hemen, probintzia bakoitzak bere erabakiak hartzen ditu, Angela Merklekin hitz egin ondoren. Bavieran beste probintzietan baino neurri gogorragoak izan ditugu, eta hasieran ordubetez bakarrik irten ahal ginen pasiatzera. Baina etxe aurreko parkera irteteko aukera hasieratik izan dugu, beti ere, elkarren arteko distantziak mantenduta. Apirilean eguraldi oso ona egin du, eta kalera irteteko tarte horiek oso ondo etorri zaizkigu. Baina bestela, oinarrizko zereginetara bakarrik irteteko aukera daukagu, eta Polizia oso zorrotz ibili da hori zaintzen. Merkel oso adi ibili da. Proba asko egin dira, goi mailako ospitale eta azpiegitura oso onak ditugu hemen eta mediku asko. Horrek guztiak lagundu du egoera kontrolpean mantentzen. Dirulaguntza asko ematen ari da Gobernuak: autono-

moentzako, dendari eta ostalarientzako, kreditu pertsonalak ere bai, alokairua ordaintzeko laguntzak... Eta laguntza horietako asko 2022ra arte ez dira itzuli behar. Orain badirudi neurriak hartzen hasiko direla. Orain kalera irten gaitzke binaka pasiatzera edo kirola egitera, beti ere elkarren arteko distantziak mantenduta. Eguraldi ona egiten duenean jendeak ez du asko errespetatzen araudia, eta nire ustez, neurriak ondo zaindu beharko genituzke, denok ditugulako arrisku taldeko senide, lagun edo bizilagunak inguruan. Maiatzaren 6an mugak ireki zituzten probintzien artean, eta dendak eta jatetxeak ere hasi ziren zabal-

tzen, bai denda txikiak eta baita handiak ere. Jatetxeen kasuan terrazak zabaldu zituzten lehenengo eta gero barruko aldea, %50ean. Haurtzaindegi eta eskolak ere zabaldu zituzten, %50ean, umeak txandakatuz. Adituek diote neguan bigarren osasun krisialdi bat etortzeko arriskua dagoela, eta hori sahiesteko neurriak hartzen ari dira. Apirilaren 27tik, esaterako, maskarak erabiltzea derrigorra da. Uste dut egoera honetatik asko ikasi dugula denok, eta konturatu gara lanbide batzuk oso beharrezkoak direla. Espero dugu egoera ez okertzea, baina beste muturreko egoera baten aurrean, ondo prestatuta egotea ezinbestekoa da”.



AINHOA FIGUEIREDO, irakaslea Italian (Elgoibar, 1982)

“Orain dela 11 urte etorri nintzen Erasmus programarekin, eta hemen geratu nintzen. Corciano herrian bizi naiz, Perugiako probintzian, eta zonalde honetan nahiko lasai gaude, baina arauak berberak dira Italia osorako. Martxoaren 5ean ikastetxe guztiak itxi zituzten, eta martxoaren 9tik etxean gaude denok, konfinatuta. Ni irakaslea naiz eta on-line ari naiz eskolak ematen. Guraso eta irakasle telematikoa izatea zer den ikasten ari naiz. Nire alaba nagusia lehenengo mailan dago eta haren eskolako lanak on-line jarraitzea tokatu zait batetik, eta bestetik, irakasle bezala, nire ikasleentzako lanak prestatzea egokitu zait. Eta konturatu naiz gurasoen gustua egitea oso zaila dela eta sekula ez daudela konforme. Batzuek diote lan gehiegi bidaltzen diegula, beste batzuek gutxiegi dela... Bakoitzak bere errealitatea dauka etxean, eta denek ez dituzte baliabide teknologiko berberak. Hezkuntza Saila eta ikastetxeak saiatu dira familien gabezia horiek konpontzen, eta Gurutze Gorriaren bitartez zenbait etxetara eraman dituzte gailuak. Baina hau luzerako doa. Aurtengo ikasturtea telematikoki amaituko dutela esan dute, baina oraindik airean dago datorren ikasturtea. Aukera desberdinak aztertzen ari dira, baina oraindik ez dute ezer erabaki. Maila altuetan errazagoa izango dela iruditzen zait, ikasleak helduagoak direlako eta babes-neurriak bete behar direla ulertzen dutelako, baina txikiek ez dute egoera ulertzen, eta ezin zaie eskatu lagunekin ez jolasteko. Beraz, printzipioz ematen du 14 urtetik aurrerakoekin hasiko dela ikasturtea irailan, ikasleak txandakatuz. Gela erdia goizez joango litzateke, eta beste erdia, arratsalde, eta gainerako orduak on-line emango litzateke. Baina ez dakigu ezer seguru. Erabakiak estatu osorako hartzen badira edo probintziak ere desberdina izan daitezke. Gu lasai gaude hemen, baina iparraldean egoera larriagoa da. Baina hemen ere ekonomiak agintzen du eta orain arintze fasean sartuta gaude. Zuzenean bigarren faseatik hasi gara. Orain

dela bi aste hasi ziren denda batzuk irekitzen: umeen jantzi-dendak, iturgintzakoak, elektro-tresna etxeak... Eta maiatzaren 4an arinaldiaren bigarren fasean sartu ginen zuzenean, hemen ez dituzte lau fase iragarri Espainian bezala, eta bigarren fase honetan industria enpresa txikiak irekitzen hasi dira. Aldaketa nabarmena izan da senideak bisitatzea joateko aukera daukagula orain, betiere, probintzia barruan, maskararekin eta elkarren arteko distantziak mantenduz. Nolabait esateko, oraindik domeketako bazkariak ez daude baimenduta. Ikusi egin beharko da neurri berri hauekin zer gertatzen den. Udara begira litekeena da probintzien arteko mugak ere zabaltzea, eta jakina da mugikortasunak birusa zabaltzeko arriskua handitzen duela. Turismoak diru asko mugitzen du Italian. Gure probintzian ez daukagu hondartzarik, baina Trasimeno lakua daukagu, eta alemaniar asko etortzen dira. Aurten ez dut uste ahalbidetuko dutenik nazioarteko turismoa. Gu ere Elgoibarrera joan ezinda geratuko gara. Hegaldirik ez dago momentuz, eta hegazkinetan ere jende kopurua murriztuko dutenez, hegaldiak garestitu egingo dira. Autoz joatea ere pentsatu genuen, baina Frantziak mugak itxita ditu, beraz, aurten uste dut gu ere hemen geratuko garela udan. Ez dakit hau guztia noiz eta nola bukatuko den, baina krisialdi gogorra etorriko dela dirudi. Gure kasuan zortea daukagu, bikotea eta biok administrazio publikoko langileak garelako eta gure lana mantendu dugulako. Baina nire lagun batek edergintza zentro bat dauka, eta egoera zaila dauka benetan. Ekainaren 1etik aurrera ireki dezake, baina 40 metro koadroko, bezero bat hartu dezake, eta gainera, dena garbitu behar du bezero bakoitzeko. Tratamenduen prezioa igo beharko duela uste du, jende gutxiago hartu beharko duela, baina aldi berean, prezioak igota bezeroak galtzeko arriskua ere ikusten du. Beraz, agian zabaldu ere ez du egingo negozioa. Egoera horretan asko egongo dira, eta alarma egoerak iraun bitartean gobernuak dirulaguntzak emango dizkie, baina alarma egoeraren ostean negozioa zabalitzen ez duenak, ez du diru-sarrerarik izango. Poliki-poliki eta denon artean egin beharko diogu aurre egoera honi”.

MASKARAK

Loreak taldeko emakumeek ere euren alea jarri nahi izan dute alarma egoera honetan behar handiena dutenei laguntzeko, eta maskarak egiten ari dira, komunitate zaurgarrienari banatzeko. Ternuak emandako oihalekin eta Alfak emandako hariekin egin dituzte. Miriam Caro taldeko dinamizatzaileak eman dizkigu azalpenak.

- AINHOA ANDONEGI -



Kolektibo zaurgarrienentzako maskarak

Salima Mahiaouik, Maryam Mousaifek, Malika Kaddourik, Norma Martinezek, Zubaida Begumek, Hanane Najari Zeroualiek eta Kanza Mousaifek euren herrialdeak utzi behar izan zituzten, eta bizimodu berri baten bila, Elgoibarrera iritsi ziren. Asko utzi zuten atzean, eta ez zekiten zer aurkituko zuten aurrean. Ezinbestekoa sartu zuten maletan, eta ilusioz ekin zioten bideari, euren jatorrizko herrialdeetako emozio eta oroitzapen garrantzitsuenak oroimenean gordeta, nondik datozen eta nortzuk diren ez ahazteko. Harrera herrialdeko ohiturak ere jaso zituzten, hori baita bertakotzeko modu bakarra, eta Loreak kulturarteko elkartearen aurkitu zuten bilgune eta aterpea. Maroko, Pakistan eta Nikaraguako emakumeak biltzen ditu Loreak taldeak, eta astean behin elkartzen dira josteko. Jostentzen bidez ahalduz diren emakumeak dira, beraien espazioa aurkitu dute jostentza tailerrean, eta barikeruero lau orduz beraien bizipenak elkarbanatzen dituzte, oihala eta puntada artean. Koronabirusak eten zuen beraien asteroko elkarteak, baina ez ordea, euren jarduna. Covid-19ari aurre egiteko zerbait egin nahi zuten, egiteko beharra zuten eta bakoitzak bere etxean hasi zen maskarak josten. "Maskara sendagarriak" deitu diete, birusarengandik babesteko gaituzten maskarak direlako, baina aldi berean, hitz eta pentsamendu minberak sendagarri bihurtzen laguntzen dutelako. Komunitatearen eskatu zuten materiala: Ternuak oihalak eman dizkie, eta Alfak, hariak. Beraien josteko makinak erabiliz, maskara bilakatu dute lehengaia, eta orain, Sartu-Zabaltzen kooperatibaren bitartez, kolektibo zaurgarrienei banatuko dizkiete. Maitasunez jositako maskarak dira, "solidarioak eta doakoak", beharrik handiena duten herritarrentzat.




Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritzza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 11:00 - 13:00

Beopaindegi zerbitzua daukagu.
Datu ordua hartzeko.



MILARBIRE

EZOHIKO GUTXIENEN ZERBITZUAK

Behar-beharrezko
etxetresna elektrikoak.
Ahal den neurrian,
etxez etxeko zerbitzuari
eutsiko diogu.

Arreta ematen jarraituko dugu
telefono zenbaki honetan:

943 741 487

LANA.....
Eskaerak

Magisteritza ikaslea umeak zaintzeko eta eskola partikularrak emateko prest. Euskalduna naiz.

☎ 684 221 398

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 626 490 986

Nagusiak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan nahiz asteburuetan. Garbiketa lana, plantxa eta sukaldeko lanak egiteko ere prest. Esperientzia daukat eta arduratsua naiz.

☎ 632 355 103

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 631 895 039

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 685 386 485

Adinekoak zainduko nituzke. Erreferentzia onak dauzkat.

☎ 688 735 551

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke. Arduratsua naiz eta berehala lanean hasteko moduan nago.

☎ 615 526 482

Adinekoak eta gaixok zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke. Arduratsua naiz. Asteburuetan edo etxeko langile moduan jarduteko prest nago.

☎ 632 355 103

Adinekoak nahiz umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 640 031 348



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Instituto Vasco Administrativo de Estudios Económicos



**ROSA Ma
PINTADO**

Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire etxebizitzako terrazan baldosa batzuk apurtuta daude, eta jakin nahi nuke baldosa horiek ordezkatzeara komunitateak egin behar duen edo ez.


Terraza bat mantentzeko eta konpontzeko gastua nork bere gain hartu behar duen zehaztea terrazaren izaera komun edo pribatuaren arabera da. Elementu komunak badira, erregistroko dokumentazioan kontraktorik ezarri ez delako, ez dago zalantzarik: komunitateak bere gain hartu beharko ditu mantentze-lanak eta konponketak; alegia, jabe guztiek erantzun beharko dute, erabili nahiz ez. Arazorik handiena balkoiak eta terrazak pribatiboak direnean sortzen da. Kasu horretan, kanpoko estaldurak (Komunitatearen kontura konpondu eta mantendu beharrekoak) eta beste zatiak (lurzorua, esaterako) bereizi beharko dira. Kasu horretan, jabeak erabilerabaldintza onetan eduki behar du, eta ohiko erabileragatik hondatu denean konpondu egin beharko du. Higadura zoladuraren piezetan gertatu ohi da, eta jabearen erantzukizuna da berriz jartzea. Zoladuraren azpian, berez, komunak diren beste eraikuntza-elementu batzuk daude, hala nola iragazgaizte-geruza edo forjatuaren egitura. Elementu horiek hondatzen badira, komunitateak konponketaren kostuari aurre egin beharko dio.

Gomendioa. Iragazgaizteak funtzionatzeari uzten dionean eta filtrazioak gertatzen direnean gertatzen da gatatzka gehien. Kasu horretan, arazoa da zehaztea zein izan den iragazgaiztearen hutssegitearen arrazoia; izan ere, hura erabiltzen duen jabearen jarduketaren ondorioz gertatu bada, jabea izango da erantzulea, eta, beraz, bera izango da hura konpondu beharko duena, elementu komuna izan arren.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Sabin**, maiatzaren 21ean 11 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoen partez. Oso ondo ospatu.



Zorionak, **Laida**, astelehenean 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Asier**, maiatzaren 17an 3 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.




Zorionak, **Peru**, Gure etxeko poztasunak, 6 urtel! Segi horrela, maittea. Laster festa handia antolatuko dugu ospatzeko.



Zorionak, **Ane**, maiatzaren 18an 11 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez. Ondo pasatu!



Zorionak, **po-txolo!** 6 urte potolo! Muxu handi-handi bat etxeko eta bereziki, Laia eta Alainen partez.



Zorionak, **Laia**, igandean 4 urte egingo dituzulako. Amama, izeba eta Sararen partez. Muxu handi bat.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Alarma egoerak irauten duen bitartean, Elgoibarren guardiako botikarik ez dagoen jai egunetan Yudego farmazia zabalik egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

15 BARIXAKUA	16 ZAPATUA	17 DOMEKA	18 ASTELEHENA	19 MARTITZENA	20 EGUAZTENA	21 EGUENA	22 BARIXAKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gavez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



I. URTEURRENA

Jose Zabala Larrañaga

2019ko maiatzaren 13an hil zen,
87 urte zituela.

Zure oroimenak indartzen gaitu.



I. URTEURRENA

Javier Artolain Azurmendi

2019ko maiatzaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.




II. URTEURRENA

Agustin Makazaga Martija
"Ziolar"

2018ko maiatzaren 16an hil zen, 88 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.




II. URTEURRENA

Joxe Mari Isasti Zulaika
"Aizarna"

2018ko maiatzaren 17an hil zen, 89 urte zituela.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.***



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112

► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

BICENA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.bicena.eus
info@bicena.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

MAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



Aroztegia Carpinteria
ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tienda@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ongi iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

- Igeltseritza
- Pintura

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@icm.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Urruzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea

- Aroztegiak
- Erreformak